

EROSKI-K BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU, KABIEZESEN, SANTURTZIN

- **Saltoki berrituak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du, eta tokiko produktuen alde egiten du**
- **925 metro koadroko salmenta areto bat du, eta 28 langile ditu**
- **Iaz erositako 10 dendetatik irekitzekoa zegoen azkena da, eta hura berritzeko 8 milioi euro inbertitu dira.**

Santurtzi, 2021eko maiatzaren 13a.- [EROSKI](#)k supermerkatu bat ireki du Antonio Alzaga etorbideko 53.ean, Kabiezesen, Santurtzin. Joan den urteko martxoan erositako hamar dendetatik irekitzekoa zegoen azkena da; haren aurreko inaugurazioak izan ziren Bilbon, Henao eta Autonomia kalean eta Errekaldeko eta Deustuko auzoetan, Itzubaltzetan (Getxo), Erandion eta Basaurin. Kooperatibak zortzi milioi euro inbertitu ditu zentro horien birmoldaketan.

Hala, EROSKI bere presentzia handitzen ari da Bilboko auzo guztietan, eta bere eskaintza osatuko du dendak ipinita Getxon, Astrabuduan, Santurtzin, Basaurin eta Galdakaon. Era horretan, 90 supermerkatu izango ditu guztira Bilbo Handian.

Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 925 metro koadroko salmenta aretoa du. 28 langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarririk behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 848.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

Tokian tokiko produktuek garrantzi handia

"Produktu freskoen eta tokian tokikoen alde egiten jarraitzen dugu. Ez da bakarrik gure izaeraren ikurra, baizik eta baita herritarren eskakizun gero eta zabalago bat ere COVID-19aren garaiotan", esan du EROSKIk iparraldean dituen supermerkatuetako zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Eskualdeko 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 650 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifikoko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

(glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegri-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Era berean, saltokia iraunkorragoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen iraunkortasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialean aplikatzen duen berrikuntza teknologikoari esker, eraikinak gutxiago kontsumitzen du. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogenea da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

EROSKI da liderra EAeko elikagaien banaketan. 406 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu hipermerkatuak, supermerkatuak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, baita [online](#) supermerkatua ere. Gainera, sei plataforma logistiko ditu, guztira 118.000 metro koadroko azalera hartzen dutenak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)